

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
142 positibo berri	1.813 hildako EAEn	362 positibo berri	557 hildako
9.543 positibo guztira* UCIn EAEn	57 UCIn EAEn	15.107 positibo guztira	25 UCIn Nafarroan

*HERNANIN321 (+20), ASTIGARRAGAN 53 (+0)

«Herriak eta herritarrak jasandako minak» jasotzen dituen 'Hernani Oroimena' webgunea, abian da

Martxan jarri dute jadanik, Hernani Oroimena Webgunea, Hernaniko Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak. Hernanin eta hernaniarren aurka gertatutako giza eskubideen urraketak jasotzen dira bertan: www.hernanioroimena.eus.

HERNANI OROIMENA WEBGUNEAN

Hernaniko Udala, Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean jardun du hainbat urteetan, eta makina bat ikerketa egin ostean, Hernanin eta hernaniarren aurka gertatutako giza eskubideen urraketak ikertu eta jasotzen dituen Oroimena Webgunea jarri dute martxan. Xabier Lertxundik azaldu zuen, «Euskal gatazka-ren garaian (1960-2018) izan zen lehenengoa eta ondoren, gerra zibila eta diktaduraren lehen garaia (1936-1946)».

Aurreko ostiralean, Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, Hernaniko udalean ordezkaritza duten talde politiko guztien ordezkariek ere, parte hartu zuten aurkezpenean, hala nola, EH Bildu, EAJ, Elkarrekin Podemos, eta PSOE-EEK.

Testigantzak, Oroimena webgunean

Gertuko oroimenaren inguruko ikerketa lanaren emaitza 2019ko urtarrilean aurkeztu zen udalbiltzar aretoan, eta geroztik, ikerketarekin aurrera jarraitu du Aranzadik. «Lan hauek irekiak dira, etengabe eguneratzen da informazioa. Datu berriak, artxiboetako dokumentu berriak eta herritarren ekarpenak bildu ditugu» jakinarazi du Javier Buces Aranzadiko ordezkarik eta historialariak.

Eguneratze lan hauek egin bitartean, Udalak, Aranzadiarekin elkarlanean abiatu zuen gerra zibilaren eta diktaduraren lehen urteetan gertatutako giza eskubideen urraketak ikerketa. Gainera, Aranzadik, fusilatuen gainean eginda zeuden lanak abiapuntuzat hartuta, Aranza-



Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea ezkerrean, eta Hernaniko Udal ordezkarik, eskuinean.

dik ikusi zuen, «beste errepre-saliatu batzuei buruzko informazioan hutsune haundia zegoela». Hori horrela, hau ikertzen jardun du, azken hilabeteetan.

Ikerketa eta dokumentazio lan hauen ostean, hurrengo pausuarekin hasi ziren, gertuko

oroimenaren ikerketa abiatzea, hau da, «1960tik gaur egun arte motibazio politiko gertatu diren giza eskubideen urraketak guztiak jaso eta dokumentatzea», eta hori egin du Aranzadik. Lertxundik gaineratu zuen, «gertuko historiaren egia azaleratzea

oso gogorra» izan dela «oroitza-penak eta zauriak oso bizirik daudelako». Hala ere, gaineratu zuten, «hemen gaudenok, bat egin dugu gure herriaren sufri-mendua azalarazteko, baita bik-tima guztiei gure dolumina eta babesa erakusteko ere». **K**

'Euskararen bidegurutzetik' liburuaren aurkezpena bihar Kike Amonarrizek, Euskaraldiaren eskutik

Bihar Euskaraldiak antolatuta, Kike Amonarrizek 'Euskararen bidegurutzetik' liburua aurkeztuko du, arratsaldeko 19:00etan hasita, Biterin.

HERNANI EUSKARALDIA

Euskaraldiak, biharko ere zita jarri du. Izan ere, Kike Amonarrizek, bere liburuaren aurkezpena eskainiko du, arratsaldeko 19:00etan, Biterin. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari eta normalizazioari buruzko ezagutzak jendarteratu ditu liburuan. Bertaratzeko, aurrez izena

eman behar da, eta asteazkenean bertan ere egin daiteke. Hiru modu daude, euskaraaridu@dobera.eus helbide elektronikora idatzi, 627 285 904 telefonora deitu edo Biteriko sarreran dagoen orria beteta. Link honetan dagoen formularioa ere bete daiteke: <https://labur.eus/L3Ch5>. Horrez gain, formulario honen QR Kodea ere eskuragai dago,

honela telefonoarekin kode hau hartuta, zuzenean formularioa betetzeko aukera dago.



QR Kode honekin, formularioa bete dezakezu, zuzenean.

'Gorria' ikuskizuna, ostiralean

Ostiral honetan, Gorria ikuskizuna eskainiko dute Miren Amuriza bertsolariak eta Askoa

Etxebarrieta flamenko dantzariak, Biterin. Arratsaldeko 19:00etan izango da, eta oraindik sarrerak eskuragai daude Dobera Euskara Elkartearen.

'Euskara zorrotz, hizkera bizi' tailerra

Euskaraldiak hamaika ekintza antolatu ditu, eta haien artean, Joxerra Gartzia eskainiko du tailerra *Euskara zorrotz, hizkera bizi*, hain zuzen. Oraindik zehazteko dago tailerraren eremua, hala ere, antolatzaileek jakinarazi dute «AEKn edo Bite-

rin» egingo dela. Urriaren 15etik azaroaren 5era egingo da. Tailer hartzaileak, «euskaraz dakitenak» izango dira, izan ere, «ez da euskaraz ikasteko ikastaro bat. Euskaraz dakitenek bere hizkuntza erregistro informalean aberasteko baizik».

Ikastaroaren prezioa, 25 eurokoa da, eta Doberako bazkideentzat 20 eurokoa. Izen ematea, «lekuak betetzean» amaituko da. Eta bi bide daude, euskaraaridu@dobera.eus helbidera idatziz, edo 689 675 462 telefonora deituz. **K**

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlagu poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

Amaita
arrandegia

Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta
izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

• Zerbitzu partikularrak eta asperu etxeekin
• Beilatokiak
• Erreusketak
• Lekualdatzak
• Eskelak, korak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

GAUR Egunsentian lanbroa eta lainoa sortuko dira, baina desagertu bezain pronto eguzki ordu dezente izango ditugu. Arratsaldeak aurrera egin ahala hodeiak ugartu egingo dira eta ez da baztertzeko zaparrada bat botatzea. **Min.15° / Max.22°**

BIHAR Erdi-mailako hodeiak eta goi-hodeiak sartuko diren arren, eguzkiari leku dezente utziko diote. Hala ere, arratsaldean haizeak mendebaldera egingo du eta hodei trinkoagoak sartuko dira; tarteka zaparradak botako ditu. **Min.15° / Max.25°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



4 eta 6 urte bitartekoentzat ipuin kontaketa gaur, Maite Frankorekin

Arratsaldeko 17:30etan ekingo diote ipuin kontaketa, eta gonbidapenak aurretik eskuratu behar dira, Biterin.

HERNANI KULTURA

Etxeko txikiak ipuin kontalariekin gozatzeko aukera izango dute gaur. Maite Frankorekin ipuin kontaketa izango da arratsaldeko 17:30etan, Biteriko areto nagusian. Haurrek heldu batekin joan behar dute lagunduta, eta alde aurretik eskura-



Maite Frankok, ipuin kontaketa eskainiko du gaur, Biteriko areto nagusian.

tu behar dira gonbidapenak Biterin, saio honetarako edukiera mugatua delako. Gaurkoa saioa

"sorpresa" izango da, Frankok ez baitu aurreratu zein ipuin kontatuko duten. **K**

Literatura solasaldia izango da gaur arratsaldean, udal liburutegian

Kultur ekintzei jarraipena emateko, Arthur Schnitzlerren 'Hildakoek ez dute hitz egiten' liburuaren solasaldia egingo da.

HERNANI KULTURA

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera *Hildakoek ez dute hitz egiten* liburuaren inguruan, literatura solasaldia egingo da liburutegian. Ikasturtearen aurkezpen saioa da gaurkoa, eta Ane Mayoz izango da solasaldiaren gidaria.

Kultur ekintzen barruan an-

tolatutako aurreko literatura saioa erderaz izan zen, baina oraingo honetan euskeraz egingo da.

Schnitzlerren, 'Hildakoek ez dute hitz egiten' gaurkoan Vienan girotuta dago istorioa, idazlearen «ahalegin errealista ikusten da». Izan ere, Viena bera, bere istorioetako pertsonaia nagusia bilakatzen da, eta «halako moduz non hiriak beste pertsonaia guztiak bere baitan hartzen dituen». Gainera, Schnitzlerrentzat, «norbanakoaren analisi psikologikoa ezinezkoa litzateke pertsonaia jaio eta garatzen den gizartearen analisi soziologikoa egin gabe», horregatik du hiriak aipatutako garrantzia. **K**



Euskara agiriak lortzeko «eskaintza zabala» Hernanialdeko AEKk

Hernani, Astigarraga eta Urnietako AEK Euskaltegiak, «eskaintza zabala» jarri du eskuragai.

URUMEA AEK

«Euskara agiria lortzeko asmoa baduzu, hauxe da zure aukera» jakinarazi dute Hernanialdeko AEK Euskaltegiak. Izan ere, Euskarazko 2garren perfila, hau da B2, eta 3garren perfila, C1 ateratzeko aukera eskaintzen da, bai Astigarragan, Hernanin zein Urnietan.

B2 (Bigarren perfila)

Astigarraga: astelehen/asteazken, 09:15-11:45 eta 14:20/16:20. Astearte/ostegun, 18:30-20:30

Hernani: astelehen/astearte/ostegun, 09:30-11:30. Astelehen/astearte/asteazken, 14:30-16:30. Astelehen/asteazken, 18:00-20:00

Urnietan: astelehen/asteazken, 09:30-11:30 eta 17:00-19:00

Kontaktuak: astigarraga@aekeus.com, 607 610 687/hernani@aekeus.com, 607 592 864/urnieta@aekeus.com, 662 338 747.

C1 (Hirugarren perfila)

Astigarraga: astearte/ostegun, 09:30-12:00 eta 14:20-16:20. Astelehen/asteazken, 19:00-21:00

Hernani: astelehen/asteazken, 09:00-11:30 eta 17:30-20:00. Astelehen/astearte/asteazken, 14:30-16:30

Urnietan: astearte/ostegun 09:00-11:30

Egunak laburtzen eta gauak luzatzen, apurka

Espainiako Astronomia Behatokiak egindako kalkuluen arabera, urtaroak 89 egun eta 20 ordu iraungo du, neguan sartu arte.

URUMEA UDAZKENA

2020ko udazkena, gaur hasiko da ofizialki Ipar hemisferioan, hain zuzen ere, Euskal Herrian 15:31 direnean.

Espainiako Astronomia Behatokiak egindako kalkuluen arabera, «urtaroak 89 egun eta 20 ordu iraungo du, abenduaren

21era arte», neguan sartu arte.

Urrian, ordu aldaketa

Bestalde, urriko azken igandean, urriaren 25ean, ordulariak ordubete atzeratu beharko dira, neguko ordutegira egokitzeko. Gauzak horrela, 03:00etan 02:00ak izango dira.

Datozen ilargi beteak

Udazken honetako lehen ilargi bete urriaren lehen izango da; hurrengoak, urriaren 31n eta azaroaren 30ean. Eklipseak ere egongo dira, baina Euskal Herri ez dira ikusgai izango. **K**

Hernaniko Pelota eskolan, izena eman daiteke

HERNANI PELOTA

Hernaniko pelota eskolan izena eman nahi duten haurrek, 656 793 990 telefonora deitu beharko dute, eta Rufino Rekalde ordezkariak galdetu. «Osasun neurriak kontutan hartuta, telefonoz bakarrik egingo da izen ematea, hala, inork ezin izango du frontoira etorri».

Udal kiroldagiko ikastaroetako izen ematea, zabalik dago

HERNANI UDAL IKASTAROAK

Ume eta gaztetxoentzako ikastaroetako izen ematea, atzo ireki zen, eta irailaren 28ra arte dago aukera apuntatzeko. Webgune bidez egin daiteke edo bulegora bertaratu, «aurrez hitzordua hartuta» 943 55 21 85 zenbakira deituz. Urriaren 5ean hasiko dira ikastaro hauek. Helduen ikastaroetako zerrendak berri, gaur aterako dira, web orrian egongo dira ikusgai, edo «goiko sarrerako kristaleran». Horrez gain, Kiroldagiak jakinarazi du, atzotik irekita daudela aldagelak, «ginmasiora eta ikastaroetara doan jendearentzat».

Goizuetako Udal ikastaroen, izen ematea

GOIZUETA UDAL IKASTAROAK

Atzo ireki zen Goizuetako Udal Ikastaroetan izena emateko epea, eta hilaren 30era arte egongo da aukera.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA

Luis Legarreta Domingo

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko

ETXEKOAK

Hernani-Ereñotzun, 2020ko irailaren 22an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**